



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2025FPRO0004

## DEKRETUA

Ainhoa Arrozpide Landak, Usurbilgo Udaleko jarduneko alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera,

### Ikusirik

Usurbilgo Udaleko Pertsonal eta antolaketa teknikaria postua (Lanpostuen Zerrendako 1.15 kodea) hutsik geratu zen. Ondorioz, lanpostua karrerako funtzionarioz hornitu arte, gehienez 3 urtez, bitarteko izaeradun funtzionario bat izendatzeko beharra sortu zen.

Ez Udalean ez eta beste administrazio batean ere ez denez izangairik lortu, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 58.4 artikulua baliatuz, lan-eskaintza Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez egitea erabaki zen alkatearen 2025eko apirilaren 7ko probidentzia bidez.

Hori horrela, 2025eko apirilaren 9an lan-eskaintza argitaratu zen Lanbiden 162025004001 kodearekin.

Hautaketa prozesuak orain arte bi fase izan ditu, merituen fasea eta elkarrizketa fasea. Aurkeztutako eskaerak baloratu eta elkarrizketak burutu ondoren izangai hauek burutu dituzte bi faseak:

Izen-abizenak	HE	Merituen fasea	Elkarrizketa fasea	Guztira
Mujika Errazkin, Ainara	C2	15,80	9	24,80
Peñalba Rebolledo, Leire	C1	5	8,60	13,60
Amiano Frago, Joseba	C1	10,40	2,50	12,90
Peñagarikano Calonge, Elixabete	C1	3	2	5
Sagarzazu Osa, Laurentze	C1	3	1,50	4,50
Arruti Ustoa, Amaia	C1	3	1	4

Hautaketa prozesu honek azken fase bezala hilabeteko praktikaldia zuen ezarrita, ezinbesteko baldintza izanik hori burutzea eta gainditzea.

Aurreko guztia horrela, 2025eko ekainaren 3ko 2025/742 dekretuan ebatzi zen, alde batetik, Ainara Mujika Errazkin praktiketako bitarteko funtzionario izendatzea Pertsonal eta antolakuntza teknikari bezala 2025eko ekainaren 26an hasita hilabetez. Eta, bestetik, hautaketa prozesua gainditu duten gainontzekoekin lan-poltsa sortzea. Lan-poltsa hori Usurbilgo Udalean Pertsonal eta antolakuntza teknikari postuan sortzen diren beharretarako soilik erabili ahal izango da.



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2025FPRO0004

Praktikaldia igarota, praktikaldiko arduraduna izan den Xabin Juaristi Arrieta udal idazkariak 2025eko uztailaren 28an sinatutako txostenean zehaztu du Ainara Mujika Errazkinek praktikaldia gainditu duela.

### **Kontuan hartuta**

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko Legearen Testu Bategina arautzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileko 10.artikuluaren 1.a atalak hutsik dauden lanpostuak betetzeko bitarteko funtzionarioak izendatzeko aukera ematen du, gehienez ere 3 urtez.

### **ERABAKI DUT**

**Lehena:** Ainara Mujika Errazkin bitarteko funtzionario izendatzea Pertsonal eta antolakuntza teknikari bezala 2025eko uztailaren 28an hasita lanpostua karrerako funtzionarioz hornitu arte eta gehienez ere hiru urtez, hau da, 2028ko uztailaren 27ra arte.

**Bigarrena:** Izendapenaren ezaugarriak hauek dira:

Lanpostua: Lanpostuen Zerrendako 1.15 kodea.

Lansaioa: Osoa.

Ordainketa maila: 19. ordainketa maila.

Taldea: A1.

**Hirugarrena:** Ainara Mujika Errazkin-i erabaki hau jakinaraztea.

Erabakiaren aurkako errekurtsoak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsoa aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.
- Non: Alkatetzara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik.

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsoaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsoaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2025FPRO0004

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziazko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

**Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena jarduneko alkateak. Usurbilen, dekretuaren datan.**

**JARDUNEKO ALKATEA**  
**Ainhoa Arrozpide Landa**

**IDAZKARIA**  
**Xabin Juaristi Arrieta**



EKS | CSV: ESKU3ef49ab0-1986-47a1-814c-76ac0335d4c2

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07310>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2025FPRO0004-Bitarte funtzionario izendapena/Nombramiento funcionaria interina (USURI